



Futbol Eskolaren BARNE ARAUAK:

1. **ERRESPETUA** izan norberarekiko, taldekideekiko, entrenatzailearekiko, gurasoekiko, aurkariarekiko eta epaileekiko. Ez egin besteei zuri egitea nahi ez duzuna.
2. **ENTRENATZAILEARI KASU EGIN**, gurasoak ez dira entrenatzaileak.
3. **KONPROMISOA**. Entrenamendu eta partidu guztietara joatea derrigorrezkoa da. Entrenamenduak entrenatzeko dira, ez kautxuarekin jolasteko edota eserita egoteko. Astean behin eta ordubete entrenatzen dugu, beraz, aprobetxatu!
4. **PUNTUALTASUNA**. Entrenamenduetara eta partiduetara (autobusa barne) garaiz joan beharko da.
5. **HUTS EGITEAK** aurrez **ABISATU** eta **JUSTIFIKATU** egin behar dira, beranduenez egun bat lehenago.
6. **KIROL ARROPA EGOKIA** eraman entrenamendu eta partiduetara. **XIRA** derrigorrezkoa da.
7. **DUTXATZEA** derrigorrezkoa da. Gurasoek aldagelara ezin dute sartu.
8. Entrenamendu bakoitzean, txandaka, **ARDURADUN** batzuk arduratuko dira materiala jasotzeaz.
9. **MATERIALA** ezin da erabili entrenatzaileek esan arte.
10. **ZAINDU** materiala eta instalazioak.

**Arau hauek ez betetzeak bere ondorioak izango ditu entrenamenduetan eta/edo igandeko partiduen parte hartzean.*

Eta gogoratu:

Galtzea edo irabaztea baino garrantzitsuagoa da...

SAIATZEA, IKASTEA eta GOZATZEA!

1 , 2 , 3 ... ZARAUTZ !!!